

## GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k

HIRI HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ATZEKO KARGAKO BI IBILGAILU  
ALOKAIRUAN HORNITZEKO KONTRATUA

Hernanin, 2017ko azaroaren 22an

AGERTU DIRA

Alde batetik, XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jauna, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko lehendakaria, NAN/DNI-zka. 15.968.340-S duena, eta IDOIA LASA ELGEZUA andrea, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko kudeatzailea eta NAN/DNI-zka. 15.391.158-H duena.

Bestetik, JAIME JOSE AZCONA SAN JULIAN jauna, FRAIKIN ASSETS SAS (SUCURSAL EN ESPAÑA)-ren ordezkari eta NAN/DNI-zka. 15.852.926-S duena.

ESKU HARTZEN DUTE

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jaunak, lehendakari gisa, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k-aren izenean eta ordezkari; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

IDOIA LASA ELGEZUA andreak, bere karguarengatik GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k-aren izenean; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

JAIME JOSE AZCONA SAN JULIAN jauna FRAIKIN ASSETS SAS (SUCURSAL EN ESPAÑA) enpresaren izenean eta ordezkari; (enpresa honen helbidea Avenida Sant Julià, número 169-175, 08403 Granollers de la Guàrdia eta IFK/CIF-zka W-0017646-A), enpresaren erabakiaren arabera.

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahikoa lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta horretarako

AZALDU DUTEAurrekari administratiboak

Kontratazio-espeditua, aurrekontua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran onartu zituen Garbitania Zero Zaborreko Administrazio Kontseiluak. Baldintza Agiri horien kopia kontratuaren osagai gisa sartzen dira.



Administrazio Kontseiluak, 2017ko uztailaren 13an burutu bilkuran, aurkeztutako eskaintzetan puntuazio gehien jasotakoak, FRAIKIN ASSETS SAS (SUCURSAL EN ESPAÑA) enpresak aurkeztutakoak, baldintza guztiak betetzen zituela eta aipatu enpresari kontratua esleitzea erabaki zuen.

Enpresa horrek zerbitzua eman ahal izateko baimen guztiak izan eta jakinarazten zaioenetik 10 laneguneko epean ezarri du, bermea 8.505,60€koa delarik.

### KLAUSULAK

1.- FRAIKIN ASSETS SAS (SUCURSAL EN ESPAÑA) enpresak hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailu alokairuan emango dizkio Garbitaniari, zorrotz betez Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian, baita kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak ere.

2.- Garbitania Zero Zabor S.M.k aipatu enpresari, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 4garren klausulan zehaztutako eran eginiko eskaintzaren arabera ordainduko dio, 3.544 €/ hileko eta ibilgailu bakoitzeko, gehi 744,24€ %21ko BEZari dagozkionak.


3.-Kontratu honek 2 urteko iraupena izango du.

4.- Bi aldeak beharturik daude kontratu hau betetzera, baita Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak; eta horietan ezarri gabeko guztian, Sektore Publikoko Kontratu Legeak eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako aginduetara makurtuko dira espresuki, baita administrazio-zuzenbideko arau orokorretara eta, horrelakorik ezean bakarrik, zuzenbide pribatukoetara.

Eta adostasunaren frogagisa, bi aldeek bi ale izenpetuko dituzte goian aipaturiko lekuan eta egunean.

**FRAIKIN ASSETS S.A.S.**  
Sucursal en España  
N.I.F. W-0017646-A

Jaime Jose Azcona San Julián  
FRAIKIN ASSETS SAS  
SUCURSAL EN ESPAÑA

x  Idoia Lasa

Xabier Arregi Iparragirre  
Idoia Lasa Elgezua  
GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.

 **garbitania**  
IFK: B-75024182